BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1577

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 20koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariarena, ONG Kupu-Kupu, Niños de Bali erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko egindako eskaera onartzen duena.

Garapen Lankidetzarako zuzendariaren 2010eko irailaren 21eko Ebazpenaren bidez, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko 2010erako Fondoaren kontura euskal borondatezko lankideei laguntzak emateko dira, bada, ebazpen horren arabera, ONG Kupu-Kupu, Niños de Bali erakundeari 36.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion Begoña López Expósito lankide boluntarioak gauzatuko zuen proiektua ordaintzeko (KOP-2010P2/0006).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2013ko maiatzaren 17an bidalitako jakinarazpenean, dagoeneko emandako diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko eskabidea aurkeztu zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako euskal lankideei diru-laguntzak arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 11. artikuluak ezarritakoaren arabera, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, diru-laguntza jaso zuen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Hortaz, Garapen Lankidetzarako zuzendariari dagokio baldintzak aldatuko dituen ebazpena ematea, eta, hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregituratuko dira, diru-laguntza horiek emateko ezarritako mugak aplikatuz, eta pertsona, erakunde eta entitate onuradunek neurriz kanpo jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dituzte.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Begoña López Expósito lankideak egindako eskaera onartzea, ONG Kupu-Kupu, Niños de Bali erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko-egitekoa.

Horren ondorioz, erakundeak justifikatuta ez dagoen dirua itzuli beharko du, hau da, 1.256,44 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 20a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.